

Amorrortu E.,
Ortega A.,
Idiazabal I. & Barreña A.,
2009.
Erdaldunen euskararekiko
aurreiritziak eta jarrerak

Naiara Berasategi Sancho

*Euskal Herriko Unibertsitatea, Didaktika eta Eskola
Antolakuntza Saila*

naiara.berasategi@ehu.es

Sarrera-data: 2011-04-30 | Onartze-data: 2011-07-30

Amarauna Ikerketa taldeko Esti Amorrotu, Ane Ortega, Itziar Idiazabal eta Andoni Barreñak, hizkuntzaren eta gizartearen arteko harremanetako ikerketetan esperientzia zabala dutenak, euskararen normalkuntzarako oso interesgarria den liburua aurkezten digute, hizkuntza politika sailburuordetzatik 2006an egindako eskaerari entzunez eta hartarako emandako diru laguntzari esker.

Liburu honetan, sakon aztertzen da hizkuntzaren normalkuntzaren esparruan garrantzia nagusia duen gaia, hizkuntzekiko jarrerak eta aurreiritziak. Ikerketa honen helburu nagusia da, batez ere arrakastaz euskaldundu ez diren euskal herritarren jarrerak eta aurreiritziak aztertzea. Honela, elebitasunerako mesedegarri diren aurreiritziak arakutzen dira, eta jarrerotan zein faktorek eragiten duten antzematen dira. Helburu hau betetzeko osagarriak diren bi metodologia nagusi erabiltzen dira; kualitatiboa eta kuantitatiboa. Kualitatiboari dagokionez, hainbat eztabaida talde egin dira, inguru soziolinguistikoaren arabera sailkatuak, eta bertan 47 lagunek parte hartu dute. Helburua batez ere euskaldundu ez direnen

jarrerak aztertzea izan den arren, eztabaidak aberatsagoak izateko iritzi-emaile euskaldunen jarrerez ere baliatu dira. Kuantitatiboari dagokionez, galdesorta bat diseinatu da eta hau ikerketa kualitatibotik ateratako datu eta ideietan oinarritu da. Honetarako, euskaldunak ez diren EAEko 18-55 urte bitarteko biztanleria osoa aztertu da. Era horretan, parte hartzaileen iritzi eta hausnarketak jasotzeaz gain, horien maiztasuna nolakoa den aztertu da. Aipatzekoa eta nabarmentzekoa da, ikerketa kuantitatiboa ikerketa kualitatiboko ideia eta datuetan oinarrituta egoteak eta metodologia biak uztartzeak, sakontasun eta zehaztasun handia eskaintzen dizkiola egindako lanari.

Liburu hau zazpi ataletan banatuta dago. Lehenengo bostek ikerketa kualitatiboa biltzen dute, eta seigarrenak, ikerketa kuantitatiboa. Azkenik, zazpigarren kapituluak liburu osoaren ondorioak biltzen ditu eta hausnarketarako proposamen bat eskaintzen du. Lehenengo kapituluan, ikerketaren nondik norakoak biltzen dira: helburuak, datuak batzeko eta aztertzekeo metodologia; lagineko partaideen berri; metodologia-markoaren eraginkortasuna; eta liburua irakurtzeko argibideak. Bigarren kapituluan, euskararekiko jarreraren izaerari buruzko pertzepzioen berri ematen da: euskararen balio instrumental, integratzaile eta ideologiari buruzkoak. Atal honetan, motibazioak aztertzerakoan berritzailea den sailkapena egiten da, ikerketa lerro tradizionalaren dikotomiaz (instrumentala/integratzailea) gain beste bide batzuk arakutzen dira. Honela, barruko eta kanpoko motibazioak kontuan hartzen dituen ardatz berria erabili da, balio instrumental eta integratzailearekin gurutzatuz. Era honetan motibazioak era sakonagoan aztertzen dira, egindako analisisa zehatzagoa izanik. Hirugarren kapituluan, ikerketan parte hartu dutenen euskararekiko uste eta jarrerak aztertzen dira esparru desberdinetatik begiraturaz; normalkuntza, erabilera, ikas-irakaskuntza eta enpresa. Laugarren kapituluan, euskaldunontzat mesedegarri eta oztopatzaile izan daitezkeen aurreiritziak aztertzen dira: euskarari buruzkoak, edozein hizkuntza eta ikaskuntzari dagozkionak (baita euskarari ere) eta elebitasunari buruzkoak. Interesgarria eta oso baliagarria da aurreiritziak eta uste orokortuak aztertzea, horiek elebitasuna edo eleaniztasuna egoera sustatzeko kaltegarriak edo mesedegarriak izan daitezkeelako. Bosgarren kapituluan, partaide “bai-bainakoak” aztertzen dira, aurrez emandako kontzeptuak erabilita. Bai-bainako bezala sailkatu dira, euskararekiko eta euskaren aldeko hizkuntza politikari buruzko jarrera ez-sutsua edo ez-grinatsua duten lagunak. Interesgarria da oso “bai-bainakoak” euskararekiko duten jarrera ezagutzea, euskararekiko jarrera epela dutenez rol aktiboa joka dezaketelako euskararen normalizazioan modu eta maila desberdinetan.

**Kualitatiboari
dagokionez,
hainbat
eztabaida talde
egin dira, inguru
soziolinguistikoa
ren arabera
sailkatuak, eta
bertan 47
lagunek parte
hartu dute.**

**Kuantitatiboari
dagokionez,
galdesorta bat
diseinatu da eta
hau ikerketa
kualitatibotik
ateratako datu
eta ideietan
oinarritu da.
Honetarako,
euskaldunak ez
diren EAEko 18-
55 urte bitarteko
biztanleria osoa
aztertu da.**

Seigarren kapituluari, azterketa kualitatiboan agertu diren jarrera eta aurreiritzietan oinarrituta ikerketa kuantitatiborako galdesorta berria eraiki da, eta galdeketa honen datuek osatzen dute azterketa kuantitatiboa. Bertan ikus daitezke zenbait jarrera eta aurreiritziren maiztasunak. Azken kapituluari, sintesia eta azken hausnarketa jasotzen dira. Aurreko kapituluari banaka landutako gaiak modu adierazkorrean lantzen direlarik.

Liburu honetan eskaintzen den azterketa oso sakona eta konplexua da, besteak beste, erabiltzen duen metodologiagatik, aztertzen duen populaziotatik eta tratatzen dituen gaiengatik. Euskararen normalizazioari begira ere ekarpen garrantzitsua eta onuragarria egiten du. Izan ere, euskararekiko jarrera epela dutenak identifikatu eta hizkuntza egoera nola bizi duten deskribatzen baitigu. Azterketa hau egitea ezinbestekoa da, egoeraren analisi sakon batek ahalbideratuko duelako esku-hartze egoiak garatu eta diseinatzea. Horrenbestez, azterketa honek egoeraren nolakotasunaren berri emateaz gain, aurreiritzi horiek aldatu ahal izateko giltza eskaintzen digu. Badira aurretik zenbait lan euskararen egoera aztertzean, jarreretan atentzio berezia jarri dutenak, besteak beste: (Arratibel 1999, Azurmedi et al. 1998a, 1998b, 2008a, 2008b, 2005, Etxeberria 1999, Eusko Jaurlaritza 2001, 2008, Garcia 2001, Ibarra et al. 2007, Idiazabal & Kaifer 1994, Larrañaga 1995, Larrañaga et al. 2010, Lasagabaster 2003, Martinez de Luna & Berrio-Otxoa 2000, Usurralde 2004). Baina lan hau bereziki interesgarria eta era berean berritzailea da, besteak beste; aztertzen duen eragin-taldea euskaldundu ez dena delako, erabilitako metodologia... Eragin talde hau aztertzea interesgarria eta aldi berean estrategikoa izan daiteke, euskararen normalkuntza prozesurako eragile giltzarri izan daitekeelako.

Bukatzeko azpimarratu nahi da, ikerketa hau azterketa eredu bezala oso baliagarria izan daitekeela, beste eragin esparru edo bestelako populazio batetara zabaltzeko, adibidez; 18 urte baino gazteagoak edo etorkin populazioa Horregatik guztiagatik, interesgarria eta gomendagarria da oso liburu hau, hizkuntzen normalkuntzen zein hizkuntzen jarreraren eta aurreiritzien egoeraren inguruan interesa duen ororentzat. ●

ERREFERENTZIAK

- Arratibel, N. (1999). Helduen euskalduntzean eragiten duten prozesu psikosozialak: motibazioaren errola. Bilbo: EHU/UPV
- Azurmendi, M.-J. & Bourhis, R. (1998). Presentación del proyecto de investigación "ICYLCABE-1996": identidades culturales y lingüísticas en las Comunidades Autónomas Bilingües (CAB) de España. *Revista de Psicología Social*, 13, 547-558.

- Azurmendi, M.-J., Bourhis, R., Ros, M. & García, I. (1998). Identidad etnolingüística y construcción de ciudadanía en las Comunidades Autónomas Bilingües (CAB) de España. *Revista de Psicología Social*, 13, 559-589.
- Azurmendi, M.-J. & Larrañaga, N. (2008). La inmigración emergente en la Comunidad Autónoma Vasca (CAV), desde la sociedad de acogida: la aculturación. In: J.F. Morales, C. Huici et al. (eds.), *Método, Teoría e Investigación en Psicología*. Madrid: Pearson.
- Azurmendi, M.-J., Larrañaga, N., & Apalategi, J. (2008). Bilingualism, Identity and Citizenship in the Basque Country. In: M. Niño-Murcia & J. Rothman (eds.), *Bilingualism and Identity. Spanish at the crossroads with other languages*. Amsterdam / Philadelphia: J. Benjamins.
- Azurmendi, M.-J., Larrañaga, N., Etxepeteleku, H., Apalategi, J., Sánchez de Miguel, M., & Ruiz, S. (2005). Construcción psicosocial de la identidad nacional y estrategias de aculturación en la Comunidad Autónoma Vasca. In: J.M. Sabucedo, J. Romay & A. López-Cortón (comps.), *Psicología Política, Cultura, Inmigración y Comunicación Social (IX Congreso Nacional de Psicología Social, A Coruña, 2005)*. Madrid: Biblioteca Nueva.
- Eusko Jaurlaritz / Gobierno Vasco (2008). IV Inkesta Soziolinguistikoa. Vitoria/Gasteiz: Eusko Jaurlaritz / Gobierno Vasco.
- Eusko Jaurlaritz / Gobierno Vasco (2001). *Euskararen jarraipena III / La Continuidad del euskar III / The continuity of Basque III / La continuité de la langue basque III*. Vitoria/Gasteiz: Eusko Jaurlaritz / Gobierno Vasco.
- Etxeberria, F. (1999). *Bilingüismo y educación en el País Vasco*. Donostia: Erein
- García, I. (2001). *Euskararen erabileran eragiten duten prozesu psikosozialak: identitate etnolingüistikoaren garrantzia*. Bilbo: EHU / UPV.
- Ibarraran, A., Lasagabaster, D., Sierra, J.M (2007). *Inmigración y aprendizaje de lenguas en un contexto bilingüe*. Bilbao: Lete.
- Idiazabal, I. & Kaifer, A. (Eds.) (1994). *Eficacia Educativa y Enseñanza Bilingüe en el País Vasco*. Vitoria-Gasteiz: IVAP.
- Larrañaga, N. (1995). *Euskalerriko gaztetxoek euskararekiko dituzten jarrerak eta beren eragina euskara ikasi eta erabiltzean*. (Doktore Tesia). Bilbo: Deustoko Unibertsitatea.
- Larrañaga, N., Azurmendi, M.J, Berasategui, N., Etxepeteleku, H. (2010). Aniztasun linguistiko eta kulturala euskal eskolan. VIII. Euskal Soziologia Kongresua, Bilbo, otsailak 10-12, (paper).
- Lasagabaster (2003). *Trilingüismo en la enseñanza: actitudes hacia la lengua minoritaria, la mayoritaria y la extranjera*. Lleida: Milenio Usurralde, I. (2004). *Euskal hizkuntza komunitatearen bizindar etnolingüistikoa*.